



GEOGRAFIA-HISTORIA DBH 3.MAILA

TESTUA IRAKURRI AURRETIK

Deslokalizazioa da mundu osoan gertatzen ari den fenomeno bat. Euskadin ere hainbat enpresa ixten dituzte munduko beste herrialde batera eramateko. Testu honen bidez ikusiko dugu zergatik gertatzen den eta zer ondorio dituen bizi garen lekuan

Orain testua irakurri eta ...

ARGAZKIA



TESTUA IRAKURTZEN DUZUN BITARTEAN

-Azpimarratu ulertzen ez dituzun hitzak

-Irakurtzen duzun bitartean, idatzi ideia nagusiak

TESTUA

Fagor Etxetresnak enpresak gaur dituen 12 fabriketatik zortzi ixtea aurreikusten du; eta horrekin batera, ekoizpen guztia Poloniara eramatea eta Haier enpresa txinatarrarekin elkartzea. Neurri horiek enpresaren bideragarritasun-planean daude jasota, eta langileria ia erdira murriztea ekarriko lukete.

Fagor Mondragon Korporazioko entseina da (Euskadiko enpresa talde garrantzitsuena da Mondragon, eta Espainiako zazpigarrena, 80.000 langile baititu). Erlojuaren kontra ari da lanean, ordea, azken bi urteetan izugarri handitu den zulo ekonomikoari aurre egiteko.



Hain da larria egoera, non enpresak egun dituen fabrika gehienak ixtea aurreikusi baitu. Euskadin dauden bost instalazioetatik, Arrasatekoa ez beste guztiak itxiko lituzke; Frantziako bost fabriketatik ere bakarrari eutsiko lioke; Poloniako fabrikari beste bat gehituko lioke, eta sozietatean Haier multinazional txinatarra sartuko litzateke, kapitalaren % 50 jarriz (munduko hirugarren enpresa garrantzitsuena da etxetresna elektrikoen fabrikazioan). Hala, ekoizpena Polonian egingo litzakete, fabrikazio-kostuak askoz ere txikiagoak baitira han.

Bideragarritasun-planean jasotako beste aldaketa nabarmen bat Haierrekin bat egitea da. Enpresa txinatarra Europako merkatuan sartuko litzateke horrela, eta euskal kooperatibak ere merkau berriak lortuko lituzke.

Langile-murrizketa handia ekarriko luke horrek: 3.000 geratuko lirateke soilik. Horietatik mila inguru Euskadin; hau da, egungoen erdia. Euskadin ez litzateke ekoizpenik egongo; ingeniari- eta berrikuntza-zerbitzuak baino ez. Planak erakundeen babesa du; Eusko Jaurlaritza eta Espainiako gobernua prest daude bien artean 120 milioi eurotik gorako laguntza emateko

Jatorrizko testua “eldiarionorte.es”, 2013ko abenduaren 7a

TESTUA IRAKURRI OSTEAN

- Definitu kontzeptu hauek: Multinazionala, Deslokalizazioa, Kooperatiba
- Bilatu informazioa:
 - Mondragon korporazio
 - Haier enpresa txinatarra
- Zer produktu ekoizten zuen Fagor enpresak? Zer motatako industria da produktuen helburuaren arabera? Zein da gaur egungo enpresa horren egoera?
- Zer faktorek ahalbidetzen dute industria-deslokalizazioa?
- Zergatik aurreikusten du Mondragon korporazioak ekoizpen guztia Poloniarara eramatea?
- Zure ustez, Zergatik Euskadin ingeniari- eta berrikuntza-zerbitzuak baino ez dira egongo?
- Zergatik erabaki dute Haier multinazionalak eta Mondragon korporazioak elkarrekin bat egitea?
- Zure ustez, Zer ondorio ditu deslokalizazio-prozesuak Euskadin?
- Zer deritzozu multinazionalak egiten dutena? Arrazoitu zure erantzuna